



ZEGAMA KO UDALA

2019KO APirilAREN 30EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- 2019/02 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.
- 2.- DONEJAKUE BIDEKO PEREGRINO ETXEA EGITEKO PROIEKTUAREN ONARPENA ETA LANEN KONTRATAZIOA BIDERATZEKO BALDINTZA-PLUGUEN ONARPENA.
- 3.- GOIERRIKO EKIMENA S.A. BATZAR OROKORREAN AZTERTUKO DIREN GAIEN ONARPENA.
- 4.- GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ZEGAMA KO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, MENDEKOTASUN PRESTAZIO EKONOMIKOAK JASOTZEN DITUZTEN HERRITARREK JASOTAKO ZAINZAREN KALITATEAREN ALDIKO JARRAIPENA EGITEKO.
- 5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 6.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).
Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).
Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).
Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).
Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).
Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Maite Rodrigo Albizuri And. (Zegama Lantzen). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.



ZEGAMAKO UDALA

1.- 2019/02 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	126,00
6	INBERTSIO ERREALAK	47.300,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		47.426,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	47.426,00
GUZTIRA		47.426,00

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.



ZEGAMAKO UDALA

2.- DONEJAKUE BIDEKO PEREGRINO ETXEA EGITEKO PROIEKTUAREN ONARPENA ETA LANEN KONTRATAZIOA BIDERATZEKO BALDINTZA-PLUGUEN ONARPENA.

Espedientea ikusirik.

Zegamako Udalak, 2018ko azaroaren 19ko bilkuran onartu ondoren, Done Jakue bideko Peregrino Etxea egiteko lanen kontratazioa bideratzeko deialdia egin zuen, Ignacio Ibarretxe Pariente arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera.

Bideratutako deialdia hutsik geratu ondoren, Alkateak adierazten du lizitazio berri bat bideratea iritzi dela, proiektuaren aldaketa egin, eta lizitazioa bi ataletan banatuz. 1 atala lan osagarriak eta 2 atala egitura eta gainazala izanik.

Ondorio horietarako, lehiaketa ireki bidezko administrazio-klausula zehatzen eta baldintza teknikoen (proiektua) agiriak aurkezten dira bere onarpenerako.

Lan horien aurrekontua honako hau da:

1 atala.- Lan osagarriak

Proiektuan jasotako lizitazio oinarria 131.510.56 euro (BEZ kanpo), 159.127.78 euro (BEZ barne).

Egite epea.- Birplanteo akta sinatzen denetik 3 hilabete eta erdi.

2 Atala.- Egitura eta gainazala.

Proiektuan jasotako lizitazio oinarria 85.581.99 euro (BEZ kanpo), 103.554.21 euro (BEZ barne).


Egite epea.- 3 hilabete.

Lanak bideratzeko aurrekontu nahikoa jasota dago 1.0000.601.03.459.00.2019 eta 1.0000.601.03.459.00.2018 aurrekontu sailetan.

Horiek ikusi eta eztabaidatu ondoren, Udaltzarrak, etorritako kide guztien aldeko botuekin, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako agiriak eta proiektua (aldatua) onartzea, eta horien arabera, kontratazio prozedura onartzea.

Bigarrena.- Lehiaketa hau arautuko duten plugu eta agiriak, Euskadiko Kontratazio Publikoen Plataforman, ohikoak diren hedabideentan, Udaletxeko iragarki oholean eta udaleko web gunean argitaratzea.



ZEGAMA KO UDALA

3.- GOIERRIKO EKIMENA S.A. BATZAR OROKORREAN AZTERTUKO DIREN GAIEN ONARPENA.

Goierri Turismoa S.L.ko administratzaile bakarrak, eta Goierriko Ekimena S.A. sozietateak 2019ko martxoak 25eko Administrazio Kontseiluan onartutakoarekin bat, eta prezeptu legal eta estatutarioak betetzeko asmoz, 2019ko maiatzaren 24ean Batzar Orokorra ospatuko duela adierazten du, bertaratzeko deialdia eginez.

Batzar Orokor horretan, 2018ko Memoria, Balantzea, Irabaz eta galeren kontuak eta emaitzaren aplikazioari dagokion proposamena, aztertu eta onartuko da.

Zentzu honetan, Batzar Orokor horretan aztertuko diren gaiak, udal bakoitzak aurrez aztertu eta erabaki behar dituela kontuan hartuz, Alkateak, adierazitako agirien berri eman eta hauen onarpena egitea proposatzen du.

Proposamena ikusirik, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko hiru ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako 2018. urteko Memoria, Balantzea, Irabaz eta galeren kontuak eta emaitzaren aplikazioa onartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Goierriko Ekimena S.A.ri jakinaraztea.

4.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ZEGAMA KO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, MENDEKOTASUN PRESTAZIO EKONOMIKOAK JASOTZEN DITUZTEN HERRITARREK JASOTAKO ZAINZAREN KALITATEAREN ALDIKO JARRAIPENA EGITEKO.

Alkateak, adierazten du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentutik, "mendekotasun prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten herritarrek jasotako zaintzaren kalitatearen jarraipena egiteko" Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zegamako Udalaren arteko hitzarmena helarazi dela.

Zentzu honetan, honen onarpena egitea proposatzen da.

Laugarren klausulan adierazitako Udalaren betebeharrak ikusirik, udaleko gizarte zerbitzuetako arduradunekin zehaztu beharko direla adierazten da.

Hitzarmenaren helburuak, xedeak eta betebeharrak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako lau zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau adierazten du:

Lehena.- "Mendekotasun prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten herritarrek jasotako zaintzaren kalitatearen jarraipena egiteko" Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zegamako Udalaren arteko hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Zegamako Udalaren izenean eta ordezkaritza sinatzea.



ZEGAMAKO UDALA


5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 01/0419 erabakia, apirilaren 4koa, Kasinoko lokalaren alokairu fakturak onartuz.
- 02/0419 erabakia, apirilaren 4koa, 9 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz, guztira 31.126,42 eurokoa.
- 03/0419 erabakia, apirilaren 9koa, lan baimena onartuz.
- 04/0419 erabakia, apirilaren 9koa, lan baimena onartuz.
- 05/0419 erabakia, apirilaren 11koa, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren errolda onartuz.
- 06/0419 erabakia, apirilaren 11koa, Korrika batzordeak egindako eskaera onartuz.
- 07/0419 erabakia, apirilaren 16koa, ezkontzarako ahalmena eskuordetuz.
- 08/0419 erabakia, apirilaren 16koa, Olaberria auzoko festa batzordearen eskaerak onartuz.
- 09/0419 erabakia, apirilaren 26koa, lan baimena onartuz.
- 010/0419 erabakia, apirilaren 26koa, lan baimena onartuz.
- 011/0419 erabakia, apirilaren 26koa, lan baimena onartuz.
- 012/0419 erabakia, apirilaren 30ekoa, 11 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz, guztira 26.581,97 eurokoa.
- 013/0419 erabakia, apirilaren 30ekoa, Kasiona eta Ostatuko alokairu fakturak onartuz.
- 014/0419 erabakia, apirilaren 30ekoa, kreditu aldaketa bideratzea onartuz.
- 015/0419 erabakia, apirilaren 30ekoa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan hobariak onartuz.

6.- GALDE ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iurrettagoyena zinegotziak (EH Bildu), tentsio altuko linea egiteko aurreikuspen berriak daudela azaltzen du, horien berri ematen duelarik. Alkateak, gai honi buruz dituen azkeneko datuak azaltzen ditu, bilkurakideak gaiari buruz eztabaidatuz.



ZEGAMA KO UDALA

Aztertze ko gai gehi ago ez dagoenez, hasieran aipaturako eguneko arratsaldeko zortziak eta hamabost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiazaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2019kok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2019.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO